

SILIKONAZKO SABELA

Beti esan izan didate amonaren planta dudala, gorpuzkera bezain aldarte handikoa baitzen bera ere. Eta hori esaten didatenean, halako estimu berezi bat sortzen zait ezagutu ez dudan pertsona horrekiko.

Ez dakit amonak nireak bezalako sujetadoreak erabiliko zituen, tirante zabal eta bular-buru handikoak. Ama izan nahi eta ezin horretan, bere seme-alabek edoskitzen ez zuten bularretan orbanak izango zituen, goseak oso gazterik eramane baitzuen Santanderrera bereak ez ziren beste haur batzuk elikatzera. Eta ez zuen hain handikote eta galanta izateagatik gutxiago sufritu, bera ere bakarrik eseri baitzen arratsalde batez autobus zahar bateko eserlekuetan Santanderrera bidean. Bakarrik eta bakardadean, etxean uzten zituen bi seme-alaben hutsunea sakonegia baitzen. Eta bularreko orban haiek, oraindik lehortu gabeko seme-alaben adur orbanak bailiran, malkoak bezala ez zitzaizkion bidaia osoan lehortu. Autobus geltokian topatu behar zuen emakumea berehala topatu zuela aipatzen zuen eskutitzetan, ez dakit zergatik ote, inude baino plañidera antza handiagoa izango bailuke egun hartan. Eta hurrengoan. Eta hurrengo bietan eta baita zetozenetan ere. Bakardadean negar egiten zuela aipatzen omen zuen eta titia eman bitartean batzuetan ere bai. Hainbeste negar egiten zuen non isilean behin haur txikiak bere malko bat irentsi eta mikaztasun horrek bularra ukatzera eramane zion. Min ematen zion bere seme-alabei beste era batera elikatzeko eta amaren esnea hartu ordez, amaren diruarekin erositako esne-hautsak urarekin nahasturik hartzen zutela pentsatze hutsak itxi egiten zizkion bularretako mizpirak. Baina ohitu zen beste seme-alaba horietara eta bereak amaren hutsunera. Urtean zenbaitetan itzuli egiten zen eta behin baino ez zen bere seme-alabak bularretan jartzen saiatu, erabatekoa izan baitzen errefusa. Izan ere, maitatzen zituen, xamur, gogotsu, estuki maitatzen zituen egun urri haietan. Eta bere senarra hainbeste maite ez bazuen ere, maitatzen zuen, hainbeste maitatzen zuen egun haietan, non haurdun geratu zen beste behin eta alaba berri hura elikatzeko alaba berri horrek ekarritako esnearekin beste batzuk elikatzera joan behar izan zuen berriz ere, Santanderrera. Ez dakit etxe berera baina bai itzuli zela, joan hobe esanda.

Garai haietan ama izanaz damutu izan zela aipatzen zuen, ama izan ez balitz ez litzatekeelako Santanderrera joan izan, oraindik amazulo zuen adinean seme-alabazulo jasatera. Emateko jaiotako emea, emateaz ere disfrutatu ezin izan zuena.

Sabela lodien sasoian gaude. Ni sasoian nago nahiz eta nire sabelaren loditasuna ez den haur baten eraginez sortua, baina haiek eta ni norbaitentzako gu bat garen heinean ni ere sabela lodien sasoian nago, sasoian bakarrik haiek dauden arren eta ni haiekin batera, zoratzeko modukoa. Haurrak izateko adinean nagoela, alegia. Baina ni halako bukle ulergaitz baten barne sentitzen naiz, ni subjektua, gu baten baitan.

Haiek horien nortasuna jakin nahiko duzu. Haiek nirekin batera ikasitakoak dira, nirekin batera hilekoa jaitsi zitzaiena, lehengo sexu kontuen lekukoak, lanean elkarrekin hasi ginenak, gerora adarrak ernatu dituen ideologia baten baitakoak, lehenengo larru jakak elkar erositakoak eta parranda zein isilpeko berba-lagunak. Kintoak. Haiek.

Haiek, bihurgunedun zein sabel-lauak sabel dantzan aritzeari utzi zioten haien sabeletan zerbait egosten hasteko. Haurra zeritzoten batzuek, neska ala mutila, neska eta mutila baten batek 30etara iritsi gabe desiratutakoa oraindik heldu gabe zelako, zelarik nahi ez duenari eman bekio arbalda eta bikotetxoa batera. Ez zen egun batetik besterako kontua izan, tantaka hasi ziren, urrutiko zirimiria, ez dakit noren ahizpa, laguna, ... Miren! Ekaitza hurbiltzen hasi zen eta arraroa izan zen gurera iritsi zenean.

“Lrunbtean afria nre etxen. Zrbait esan bhar dzu” Gaurko what’s app bidez izango litzatekeena are kitzikagarriagoa zen ahoz ahokoa erabilgarri genuen garaian. “Mirenen etxean afalduko dugu larunbatean, zerbait esan behar omen digu”. Eta horrelako gonbidapenek milaka hipotesiz betetzen zizkiguten burua eta baita aurreko egunetako elkarriketak ere. Aldaketa bat aurreikusten genuen pertsona horren bizitzan, proiektuak beti; profesionalak, elkarbizitzakoak eta lekualdaketak ziren garai

hartara arte bizi izandakoak, iragargarriak, haiek horiekin modu goxoan konpartitzekoak.

Eta hala egin zuen, afari osoa eta goxoa Mirenen esku geratu zen eta aspaldiko partez haiek gu bilakatuak mahai baten inguruan berbaroan, nahiz eta hasieratik keinu dantza izan zen komunikazioan nabariena. Atetik sartzen joaten ginen heinean zer demontre kontatu behar diguzu zioten gure aurpegiek, denek postrera arte itxoin beharko genuela genekien arren. Baina ez zuen gure inpazientzia gehiegi luzatu, oraindik ardo koparen inguruan ginela bota baitzuen:

- Haurdun nago – lehenengo bi segundotan sortu zen isilunean grabatu izan balizkigute aurpegiak ipuina komiki bilakatuko nuke. Ikustekoak ziren, *“gu ere saiatzen ari gara”* salatzen zuten aurpegi kezkatu batzuek. *“Zer? Jada? Iritsi gara?”* erlojuari begiratzea soilik falta zitzaien desorientatu batzuei eta *“berandu da, oraingo bikotearekin geratu beharko naiz”* zioten etsitu batzuen keinuek ere. Hala ere, denak izan ziren zorion hitzak eta poztasun keinuak. Baina haiek guztioi piztu zitzaigun alerta moduko bat, heldu da sabel-lodien sasoia.

Orduan azkarrago iritsi zen zaparrada, urrutitik entzuten duzun trumoiaren antzerakoa izan zen Mirenena. Bat-bateko berria zirudien horientzat egun batetik bestera arrunt bilakatu zen eta ez zen luzatu saiatzen ari ziren horien demora. Ez zen ama sena esnatu, ama sena kutsatu zen, lagunarteko afarietara maskarillarekin joaterainokoa izan zen epidemia hura. Eta “zerbait esan behar dizuet” hori misterioa galdu zuen egun batetik bestera eta oraindik sarean erori ez ginenon ikara sortzen zuena. Gure elkarrizketak tripa-zentrikoak bilakatu ziren: sintomak, aste kopurua, sintomak eta aste kopurua, arropa, emozioak, ume-dendak, erditze naturalak, elikadura, izen konbentzionalak vs bereziak... eta etorriko zirenen aitzindariak baino ez ziren. Haurdunen arteko harremanak sendotu ziren, haien seme-alaben jaiotzak euren harremana nahitaez luzaroan mantentzera zeramalako.

Momentu horretan bukle batean topatu nuen nik neure burua, indiferentzia apur batekin. Hala ere, elkarrizketa horietatik ihes egiten dut noizbehinka, terraza batean bakarrik egoteko bada ere, nahiz eta ingurukoen tripa-begiradetan eta etorkizun galdera ugarietan giro arraroa sumatzen hasia naizen, nire barnean denon desioa sortzeko konplot moduko bat. Iristen da momentu bat non neure burua den epaitzen ez nauen bakarra, eta hala ere, arrazoika ibiltzen naiz neure baitan.

Azkenean zerbitzaria hurbildu zait eta rona edota gin-tonika bat gustura hartuko banu ere, anana zukua eskatu dut. Zerbitzariak galdetu bitartean begirada nire bularretara zuzendu duela iruditu zait. Ez da begirada lizuna izan, kaletik noanean sabelera zuzentzen didatenaren tankerakoa baizik. Orduan rellenorik gabeko sujetadorea jantzi dudala konturatu naiz eta pezoiak horren ageriko ditudan pentsatzeak une batez lotsatu nau. Lepoan daramadan zapiarekin estaltzear egon naiz baina orduan bularretan orban bana ditudala konturatu naiz. Ez dut hezetasuna sentitu, baina nabariak dira pezoien inguruan sortutako putzuak. Harritu nau. Harrotu nau azkenean nigan ere amatasunaren zantzu bat loratu dela ikusteak eta zuzenago jarri dut bizkarra, nire bular handi eta borobilak ume bat elikatzeke prestatzen ari direla zerbitzariak edo begiratu nahi duen orok ikus dezan.

Ama naizela amets egiten dut maiz, nahiko amets arraroak izaten dira; ni haur naizela erditze berritan edota erditzera noala topatzen dut neure burua edo behin erdituta alaba bat dudala konturatu gabe nire bizitza egiten jarraitzen dudala eta baita erditzeko momentuan bertan haurdun nagoela konturatzen naizela ere. Beti larridura kutsuez inguratuta eta Gorka ez da inondik ere ageri.

Gorka askotan jartzen zen aitatasunaren tesituran. Ama zainduko zuen aitaren papera zen gehien maite zuena eta dagoeneko nahikoa atzeratzen ari ginen, bere ustetan, giza-legez aitortu zaigun dohainaren erantzuna, berak ere gaitzak jota baitzegoen. Gorkarekin bere arrebeekin nola nire argudiotegira jotzen nuen; lan-egoera ezegonkorra, ezegonkortasun ekonomikoa, denbora falta... halako oreka itxura ematen beti. Ez nintzen ausartzen niri oraindik ernatu gabeko amatasun sena estaltzera eta

besteek euren sabelekin egiten duten bezala harrotasunez ez dut ama izan nahi esatera. Baina ez zen seme-alabena erabat alboratu nahi nuen zerbait.

Sabelen sasoian sartu baino askoz lehenago agertu zen Gorka. Gorkak hasieratik ulertu zuen gure artekoa ez zela ezta gau bateko kontua ere izango, harreman espontaneo hura gure parranden auskalotasunak zeraman bidekoa baizik. Baina heldu zen lehenengo egunsentia, lehenengo afaria parrandaren ordezkotxo, lehenengo oporrak. Baina barnean sena deritzoten hori agertu gabe jarraitzen zuen. Hala ere, monogamiak bide bakarra du eta itsuki zuzendu ginen biok. Ezagutu nituen bere arrebak, harremana sendotzearen – halabeharrez, korapilo bat gehiago egiten baitiozu sokari –, urtebete eta gero garaia baitzen.

Gorkak hiru arreba nagusiago ditu eta amarik gabekoak dira, ulertzen da esan nahi dudana, alegia, Gorkak hiru ama dituela, hortaz, nik hiru amaginarreba, euren artean amena nor den lehia bizian daudenak. Elkarrekin bizi dira hirurak eta inoiz aitortuko ez badute ere, euren solterismoa, noizbehinkako harremanak eta ukatu arren bilatuko dituzten asetasun uneekin ere, ez duten konbentzionalismoa eza ulertzen eta ez naiz inoiz azaltzen saiatuko ere.

Hiru bisita besterik ez ziren izan eta halako batean eta egun batetik bestera, haurdun sentitu nintzen, haurdundu ninduten. Gorkaren familia, seme-bakarraren sindromepean eta ilobarik izango ez zutenaren ustetan, semea 40etara hurbiltzen hasia baitzen, opariz josi ninduten; gelarako gortinak, sehaskatxo bat, nola ez txupeteak... eta mordo bat zorion. Gorkaren arrebek beti aipatzen didate sabelaren neurriaren kontua, arreba nagusiak laugarren hilerako jaso zituen kiloak lau haizetara botatz, arropa ezin sarturik ibiltzen zela hirugarrenerako besteak eta beldurrez joaten naiz ez ote didaten hurrengo batean sabelaren diametroa neurtuko, nik ez baitut oraindik arropaz aldatu eta haiek badakite, ongi ezagutzen baitute nire armairua. Oraindik praka estu horiek jartzen dituzu? Edota esango diguzu haurdun arropa behar duzunean.

Sabela laztandu eta hazten ari dela sentitu dut, borobiltzen ari dela behealdetik nire eskuen azpian eta oiloak bezala inkubatu beharko dudala iruditzen zait. Azkenean lortu dut izanaren ikurra eta pozten nau ez baitut hurrengo batean Gorkaren etxera eta Mirenen semearen urtebetetzera joateko kamiseta azpian silikona jarriko.

Interneten bidez bilatu nuen, gazteleraz, emaitza gehiago atera zitezen, *“tripas de silicona”* eta *“quizá quiso decir: mamas de silicona”* baztertu eta lehenengo aukeran bertan topatu nituen silikonazko sabelik errealeak, bost neurri ezberdin iritsi zitzaizkidan. Kamiseta altxatu eta zilborra eta guzti erakusteko modukoak. Txinatik heldu zitzaidan paketea, eskatu eta astebetera, Donostiako Aintzaneren eskutitzak baino lehenago. Eta egun hartan ere joan ginen Gorkaren arrebeekin bazkaltzera, neurririk txikiena jarri nuen eta denen aipamenak jaso nituen egun hartan: “hasi da borobiltzen”, “hori neska da”... baina inork ez zuen bertan mugimendurik sumatzen. Horrelako egunetarako baino ez nuen jartzen udako beroarekin izerditu eta sabelatik irristatzen zitzaidan silikona. Gorkaren aurpegia sabela ikusita aldatzen zela ikustean gero eta gehiago jartzen hasi nintzen eta ematearen kontuan aditu bilakatu nintzen, aurpegi horrek aldaerak zituela sumatu bezain pronto. Sofan etzaten zen eta biok lo geratzen ginen silikonaren gainean. Hitz egiten genion silikonari. Hainbeste maitatzen hasi ginen silikona, gure etxean txoko bat sortu geniola, sehaska eta guzti – hau ere Gorkaren arrebe eositakoa –, silikonaren sexua oraindik ezagutu gabe arrosa edo urdinera jo ahal izateko. Eta Gorkak bazekien silikonazkoa zela gure fruitua, aspalditik ere silikonazkoa gure artekoa. Erditu eta gero erabiltzen jarraituko genuen silikona, ez dagoen zerbaiti beti magnitude handiagoa emateko, erabilera anitzeko materiala baita silikona.

Eskuekin inkubatzen jarraitzen dut, nire eskuekin izan baititut lorpen satisfaktorioenak beti eta loditzen doala iruditzen zait. Sabelak beherako joera duenean neska omen dela dio Pui-k – Gorkaren arreba –, baina nik mutilaren antza hartzen diot barneko sentsazioari. Denek nahi dutenaren hipotesiak egiten dituzte, nahiz eta dena delakoa den gerora maiteko duten bakarra. Eskatzen diogu, ematen ari ez den zerbait eskatu diogu, jaio gabe jada ez den zerbait dela irudikatzen baitugu,

hemen izateko gurea den ezinbesteko zerbait eman ez diogunean. Sentituko al du silikona hor barnetik?

Tolestu behar izan naiz neure barnean sentitzen ditudan kontrakzioak baretzeko, gero eta maizago agertzen da ziztada mingarria, gero eta luzeagoa da eta oihu egitera eramaten nau. Inoiz egin ez dudan bezala oihu egiten hasi naiz, baina aldamenekoek aldartea aldatu gabe jarraitzen dute euren elkarrizketetan barneraturik. Erditze prestakuntza egin ez dudan arren, arnasarekin baretzen saiatu naiz eta pixka bat hobe sentitu naizenean, alde batera okertu naiz perfilez terrazan dagoen pertsona orok halako batean neure gorputzean sartzerik ez duen tripa dudala ikus dezan. Halakoan, pixagura saihestezin bat sortu zait eta gero eta bustiago sentitu ditut kuleroak, prakak, eta orkatilaraino igaro da isuria, gainean pixa egin izan banu bezala. Komunera abiatu naiz nire ziatika ezkutatu gabe, bihartik aurrera baja hartuko dudala zin egin diot neure buruari.

Itzuli naizenean, ordaintzera hurbildu naiz barrara eta zerbitzariak berriz ere bularretara begiratu dit, inude bularrak ditudala badakit, orban eta guzti. XXI. mendeko inudea naiz, azken batean beste batzuen desioak elikatzeko bizi naizelako ni ere.

Anana zukua ordaindu eta kanpora atera naizenean silleta ikusi dut. Goringoa eta zuringoa besterik ez duen haurra hainbeste denbora bakarrik utzi izana neure buruari barkatu ezingo diodala pentsatu dut. Silletari frenoak kendu eta Mirenen semearen urtebetetze festara abiatu naiz. Ez daramat oparirik, baina haiek horien parte sentitzeko funtsezkoagoa dudan zerbait daramat oraingoan, ea sartzerik ote dudan.